

OLAZTI

Deialdia, merezimendu-lehiaketa bidez bete dadin pinturako monitorearen lanpostu bat, dagokiona aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziari. Bete gabe gelditu dela deklaratzeari

Alkatearen 2022ko azaroaren 30eko 345. Ebazpenaren bidez onetsi zen lanpostu huts batzuk merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Deialdi horretan sartuta zegoen pinturako monitorearen lanpostu bat.

Deialdian onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda argitaratuta, ikusi da ez dagoela izangai onarturik.

Hortaz, egungo legeriak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehena.—Deklaratzea bete gabe gelditu dela pinturako monitorearen lanpostu bat betetzeko prozedura, eta adieraztea prozedura amaitu dela.

Bigarrena.—Ebazpen honen berri ematea Olaztiko Udaleko langileen ordezkariari, eta ebazpena argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta gardentasun atarian.

Hirugarrena.—Ebazpen honen aurka, errekurso hauetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a) Berraztertze errekursoa, ebazpen hau eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita; edo bestela,
- c) Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, erabaki hau argitaratu eta hilabeteko epean.

Olaztin, 2024ko irailaren 5ean.—Burua, Joseba Vizuete Ascargorta.